



Aurkeztu dugun proiektua jaia gustatzen zaien jende gazteari zuzenduta dago. Askotan gazteek zailtasunak izaten dituzte gauez etxera itzultzerako orduan, distantzia edo beldurra dela eta. Horregatik, JAI BUSA aurkezten dugu egoera honi erantzun bat emateko eta gazteek duten beharra asetzeko. Gure helburu nagusia gazteak haien etxeetara lasai eta seguru iristea da.

Zerbitzu berdina eskeiniko diegu gazte guztiei, jaietan guztiek zerbitzu berdina behar dutelako. Dena den, zerbitzua ezagutzera eramateko orduan, bi modu desberdinean zabalduko dugu, bat gazteei zuzenduta eta bestea gazteen gurasoi zuzenduta.

Gazteei zuzenduta dagoena haien segurtasuna bermatuko dugula adieraziko diegu eta gure zerbitzua erabilz gero erosotasun handiagoa izango dutela erakutsiko diegu, eta ez dutela etxera bueltatzako moduan kezkatu beharko. Gainera zerbitzu honen kostua ez da garestia izango gazteek diru iturri txikiak dituztela badakigulako, eta modu honetan gazte orok erabili ahalko du. Gurasoen kasuan berriz, haien seme alabak segurtasunez etxera bueltatzea bermatuko diegu, jaiak direnean kezkatuta egon behar ez izateko.